



‘Gipuzkoa Encounter’ topaketa egingo dute

TOLOSA ▶ 400 ordenagailu eta 600 lagun bilduko dituen ekimenak informatika sustatzea du xede

EDUKIA ▶ Apirilaren 13tik 15era lehiaketak, esperientzia trukaketa eta hitzaldiak izango dira Usabalen ▶ 2




Ezker-eskuin: Sabino Sanvicente, Iñaki Suarez, Nerea Lupardo, Jokin Bildarratz eta Javier Lomas. 1. TERRADILLOS



Eskualdeko ikastetxeetako txikienen eskutik ere, euskara oinetan

TOLOSALDEA ▶ Atzo eskualdeko ikastetxe askotan Korrika Txikiak egin zituzten; eguraldi kaskarrari aurre eginez euskara zabaldu zuten. Ikaztegietan, Alegian, Altzon, Ibarren eta Tolosan ikasle gaztetxoenek herritako kaleak zeharkatu zituzten ▶ 3

OHARRA ▶




Ordua aldatuko da gaur gauean: 02:00etatik 03:00etara

VILLABONA ▶

‘Eskola hutsik’ lana taularatuko dute bihar Gurea aretoan

Ezjakintasunaren aurkako aldarria da Tentazioak taldearen lana ▶ 4



TEKNOLOGIA ▶

'Gipuzkoa Encounter' topaketa informatikoa hartuko du Tolosak

Tolosako Udalak antolatu eta Euskaltel eta Euskalamigaren lankidetzarekin apirilaren 13tik 15era izango da ekitaldia

INIÑO TERRADILLOS

Tolosako Udalak estrainekoz *Gipuzkoa Encounter* topaketa informatikoa antolatu du, 600 lagun eta 400 ordenagailu baino gehiago bilduko dituen ekimena, hain zuzen. Euskaltel Fundazioa eta Euskalamiga erakundeekin lankidetzarekin, eta Gipuzkoako Foru Aldundia eta Kutxaren babesarekin burutuko den topaketa apirilaren 13, 14 eta 15ean izango da Usabal kiroledegian.

Hiru egun iraungo ditu, eta parte-hartzaileek interneten sartzeko banda zabaleko konexioa izango dute. Ekitaldian zehar, musika elektronikoa, multimedia animazioa eta arte di-



Sabino Sarvicente topaleku arduraduna, Iñaki Suarez Spriko kidea, Jokin Bildarratz Tolosako alkatea, Nerea Lupardo Euskaltel-eko ordezkaria eta Javier Lomas Kubako ordezkaria, aurkezpenean. I.T.

DATUAK ▶

Egunak. Apirilaren 13, 14 eta 15ean.
Lekua. Tolosako Usabal kiroledegia.
Parte-hartzaile kopurua. 600

lagun beraien ordenagailuekin.
Konexioa. 1 GB/s LAN internet sarbidea.
Izen-ematea. www.gipuzkoa-encounter.org helbidean.

gitalaren (2D eta 3D) gaineko zenbait lehiaketa egingo dituzte. Hala, topaketaren bidez, teknologia hauek gustuko dituztenek ezagutzak eta esperientziak elkar trukatzearaz gain, euren zaletasuna partekatuko dute. Honez gain, *Gipuzkoa Encounter*-ek hitzaldi egitaraua ere eskainiko du, non teknologiaren esparruko aditu espezistuek hitz egingo duten. Bestalde, jolas-jarduerei dagokienez, bideo jokoen txapelketa amateur antolatuko dute topaketaren baitan.

Hiru egunetan zehar, etenik gabe, egunean 24 ordu jarraituko du ekimenak, eta gaua igaro nahi dutenentzat, Usabal kiroledegian, ordenagailuen ondoan kanpatu dezaten kanpaldizionaldea egokituko dute, eta kiroledegiko instalakuntzak ere erabili ahaliko dira.

Jokin Bildarratz Tolosako alkatea atzoko aurkezpenean azaldu bezala, «ekitaldi honen

bidez, Udalak informatikari eta informazioaren gizaritari lotutako jarduerak sustatu nahi ditu eta, halaber, babesa eskaini nahi die gauzatu eta gartzen dutenei». Alkatea 1995ean egin zen topaketa txikia ere gogoratu zuen, eta hura berreskuratu eta horrelako jaialdiak indartzea dela asmoa azaldu zuen. Tolosan egingo den topaketaren aitzindariak *Euskal Party*, eta gerora, *Euskal Encounter*, hamalau urtez jarraian Euskal Herriko hiru hiriburutan arrakastaz egin diren bi jaialdi informatiko dira.

Antolatzaileek adierazi dutenaren arabera, duela 15 egun ireki zen topaketa izena emateko aukera eta dagoeneko 400 pertsonen eman dute, eta beraz, %70a dago beterik. Oraindik, baina, lekua geratzen da, eta animatzen direnek, www.gipuzkoaencounter.org web orrian eman ahaliko dute izena.

POLITIKA ▶

Renedo berriro PSE-EEko hautagai

Esti Ezeiza ▶ Manuel Huertas Gipuzkoako PSE-EEko lehen-dakariak Oskar Renedo PSEko Tolosako alkatetzarako hautagaia aurkeztu zuen. Huertasen esanetan, «gaztetasuna eta aldi berean esperientzia biltzen ditu Renedok, izan ere, 14 urte daramatza Tolosako udaltxean zinegotzi bezala lanean». Renedok, bere aldetik, gogor lan egiten jarraituko duela eta bere ekarpenak egiten saiatuko dela adierazi zuen. E.E.



KULTURA ▶

Ballet Biarritzen saioa, gaur, Leidor aretoan

ERREDAKZIOA

Ballet Biarritz Junior 2 dantza taldearen saioaz gozatzeko aukera izango da gaur, Leidor aretoan, 20:00etan. Lehenengo promozioak izan zuen arrakasta eta gero, Dantza elkarrea eta Ballet Biarritz, euskal erakundeekin laguntzarekin, gazteen konpainia hau indartzeko ari dira lanean.

Emanaldia ikustera joan nahi dutenek sarrerak ohiko



Emanaldiko une bat. HITZA

lekuetan eskuratu ahaliko dituzte, hau da, www.kutxa.net, servikutan edo telekutan.

HITZA jaso eta abantaila guztiez gozatu nahi baduzu...

Egin zaitez harpidedun!
egunkaria + beherapenak + zozketak...

Egunkaria buzoian jasotzeko utzi atariko gutza ondorengo puntuetan:

TOLOSA
HITZaren egoitza
Araba etorb, 5 behea

LEITZA
HITZaren egoitza
Herriko plaza, 1

1.- BETE ETA ERAMAN / BIDALI BEHEKO HELBIDEETAKO BATERA:
TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA. Araba etorbidea, 5 behea - 20400 TOLOSA edo Herriko plaza 1 - 37880 LEITZA. **Nahitaezkoa da datu guztiak betetzea**

▶ Izen-abizenak: _____ ▶ NA: _____
▶ Lanbidea: _____ ▶ Jaioteguna: _____
▶ Helbidea: _____ ▶ Herria: _____
▶ P.K.: _____ ▶ Tel.: _____ ▶ mugikorra: _____
▶ Elektronikoak: _____
▶ Kontu zenbakia: □□□□□□□□□□□□□□□□□□□□

2.- TELEFONO BIDEZ ere eman ditzakezu zure datuak:
Bezero arreta zenbakia: **902 82 02 01** (Asteegunetan 08:30-20:30 Larunbatetan: 09:00-13:00)

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserrira - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ARAMBURU
Alokatzeko (Tolosa). Pisua San Frantzisko kalean.
Alokatzeko (Tolosa).
Garajeak. Araba etorbidean irekia eta Batxiler Zaldibian, eta Iurren itxia.
Salgai (Tolosa). Pisua Bizkaia kalean, gutxi eraberritua (Sputnik dorrean).
Salgai (Tolosa). Pisua "La Estrella" eraikinean.
Salgai (Tolosa). Lokalak Agintari kalean, eta Kale Nagusian.
Salgai. Garajeak, Euskal Herria kalean, irekiak ibarran.
Salgai (Tolosa). Garajeak, Leidor azpian.
943 65 17 13 / 677 46 09 16

KORRIKA ▶

Hanka txikiak baina bihotz handiak

Euripean bazen ere, haurrak lasterka aritu ziren atzo Korrika Txikian

ESTI EZEIZA

Atzo etorri zen Korrika Txikia Tolosaldera, Korrika «handia-ri» bidea irekiz eta bide batez, gaur iritsiko dela iragarritz. Eguraldi txarra dela-eta herri batzuetan beranduago egitea erabaki bazuten ere, haur asko ausartu ziren atzo korri egitera. Hori dela eta, «Korrikak zorianak eman nahi dizkie korrikalari txiki hauei».

Batzuk metro gehiago eta beste batzuk gutxiegi egin bazituzten ere, adin guztietako haurrek hartu zuten parte Korrika Txikiko ekitaldian. Tolosako Samaniego, Laskorain, eta Hirukideko ikasleek, hasiera batean denak batera Zerkausion biltzeko asmoa bazuten ere, eguraldi txarra eta euria zela eta, bakoitza bere aldetik joan zen. Samaniegokok Larramendi kaleatik abiatu ziren zuzenean, euritako eta berokiekin atonduta euripean egin zuten korri ikastetxeraino. Laskoraingoak, Zerkausion elkartu ziren eta ikastolaruntz joan ziren korrika. Berdina egin zuten Hirikidekoek.

Ibarran, barruko goxotasunean geratzea erabaki zuten. Hala, Uzturpe ikastolan barrena ibili ziren atzo goizean DBH-

ko ikasleak. Arratsaldean, Lehen Hezkuntzakoak pasiloetan barrena ibili ondoren, eskolako patioan estalpean jarraitu zuten, eta azkenik txokolatada egin zuten gurasoekin batera.

Altzoko haurrak eskolatik plazaraino joan ziren korrika. Han haurtxo batek lekukotik papertxo bat atera zuen, Korrikako «manifestua».



Altzo. Eskolatik plazaraino korrika joan ziren Altzoko haurrak, ibilbidean, adin ezberdinetako umeei joan ziren pasatzen lekukoa. Ondoren Korrikaren inguruan idatzitako bertsoa abestu zuten. E. E.



Tolosa. Samaniego ikastetxeko ikasle eta irakasleak Larramendi kaleatik abiatu ziren korrika. Hasiera batean, adinezberdinetakoak elkarri lekukoa pasatzen joan behar bazuten ere, eguraldi txarra zela eta denak batera joan ziren euripean. E. EZEIZA



Altzo. Korri egin ondoren haur batek aurtengo Korrikako manifestua irakurri zuen; ondoren, denen artean bertso bat abestu zuten. E. EZEIZA



Ibarra. Goizean DBHko ikasleek lekukoa gelaz gela pasa dute Korrika badatorrela azalduz; arratsaldean, berriz, txikiak gelaz gela ibili ondoren kanpora irten dira lekukoarekin. A. IMAZ

KORRIKA ▶

Apirilaren 1ean Iruñeara joateko autobusak

Korrikaren azken egunean, apirilaren 1ean Iruñean egingo den jaialdira joateko autobusak antolatu dituzte. Hala, txartelak salgai dira Tolosako Raku tabernan eta Zizurkilgo Aurreran.

VILLABONA ▶

Areto Futboleko hiru partida izango dira gaur

Olaederra kiroldegia antolaturiko Areto Futbol Torneoaren jardunaldiak jokatuko dira gaur. Lehendabiziko partida 14:00etan izango da, eta Karhe eta No somos nadieen artean. Bigarrena 15:00etan, Itzuli taberna Egarrri tabernaren aurka ariko da. Azken saioa Pub Ekaitza eta Setava Bucurestiren artekoa izango da, 16:00etan.

TOLOSA ▶

Etixeraten Nazio Biltzarra izango da bihar Tolosan

Bihar, 10:00etan, Leidor zine-man, Etixeraten seigarren batzar nazionala izango da. *Etxean eta bizirik* lelopean, 2006ko balantze orokorra izango da ardatz nagusia, baita preso politikoei bizi duten egoera aztertzea ere.

TOLOSA ▶

Langileentzat, Instalazioa kalkulu ikastaroa

Tolosaldeko Goi mailako Lanbide Heziketa Institutuak antolatuta, etzi hasiko da Instalazio Kalkuluaren ikastaroa. Dohako kastaro hau langileei zuzendua dago. Izen-ematea ikastetxean edo 943 651147 telefonoan.

TOLOSA ▶

Kirol gaua egingo da gaur gauetan Usabalen

Gaur, 20:00etatik 22:30era Kirol Gaua ospatuko da Usabal Kiroldegian. Taldeka nahiz banaka, kirol ugari egin ahal izango dira bertan.

VILLABONA ▶ MUSIKA



Eresargi abesbatza, iazko kontzertu batean. HITZA

Eresargi eta San Miguel Arcangel, kantari elizan

ERREDAKZIOA

Villabonako Eresargi abesbatzak eta Larragako (Nafarroa) San Miguel Arcangel abesbatzak kontzertua emango dute gaur, 20:00etan, Villabonako elizan. Eresargik abestuko dituen obrak sakroak izango dira eta atzerritar konpositoreenak: *Schiwisi adanai*, *Ubi*

caritas, *Pater meus*, *Ecce quomodo moritur justus* eta *Bogoroditze dievo*.

Abesbatza nafarrak, bere aldetik, folklorean oinarritutako abestiak ere kantatuko dituzte: *O domine, Señor aquí me tienes*, *Por los caminitos de Jerusalem*, *El mochilon*, *Sali de Cuba*, *Txoria*, *Panis angelicus* eta *Maitea nun zira*.



San Miguel Arcangel abesbatzako kideak. HITZA

ADUNA ▶

Karmakros antzerki taldea gaur Asvinenean

Asvinenearen asteroko egitarau finkoan Karmakros antzerki taldeak *El sueño de una noche de...* antzezlan emango du gaur. Emanaldia 22:30ean hasiko da.

VILLABONA ▶

Jakoba Errekondoren hitzaldia, etzi

Aritza kultur taldearen ikastaroaren baitan, Jakoba Errekondok *Euskal paisaia, lurra eta baserriaren historia* hitzaldia emango du Gurea aretoan, etzi, 19:00etan.

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Villabonako sukaldaria behar da. 943 69 19 33.

Garbiketa, mantenua, gidariak, langileak, sukaldaritza langileak... behar dira lanpostu finkoak

betetzeko. 943 29 82 32.

Suhiltzaileak, basozainak, Ertzaintza, udaltzainak. Erakunde publikoetarako hainbat deialdi. 943 32 66 63.

Hezkuntza, Eusko Jaurilaritza.

Berehalako deialdia. 1.172 lanpostu gorputz-hezkuntza, haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, ingelesa, euskara, musika, ALE, PT eta aholkularitza. Informa zaitetz. 943 32 66 63.

ESKUALDATZEA

Loradenda. Erretiroagatik, loradenda eskualdatzen dut material eta guzti, Lasarten. Kokapen ezin hobea. Baldintza interesgarriak. 626 10 56 89.

VILLABONA ▶ KULTURA

Ezjakintasunaren aurkako aldarria

Tentazioak 'Eskola hutsik' lana taularatuko du bihar Gurean

ERREDAKZIOA

Tentazioa antzerki taldeak Thar Ben Jelloum idazle marokoarraren *Eskola hutsik* nobela egokitu du antzerkirako. Bihar, 17:00etatik aurrera emango du antzezlan Gurea aretoan, lau euroren truke. Zortzi urtetik gorako haurrei zuzenduta dago lana. Karlos Nguema aktoreak kontatuko du istorioa, Luis Camino musikariak zuzenean perkusioa jotzen duen bitartean. Obran zehar irudiak botako dira proiektore baten bitartez.



Antzezanaren irudi bat. HITZA

Antzezanaren Afrikako irakasle baten istorioa kontatzen da. Ikasleek, pixkanaka-pixkanaka, utzi egiten diote eskolara joateari. Azkenean, zapatilak eta larruzko baloiak egiten dituen lantegi batean aurkituko ditu ikasleak. Hamabi ordu egiten dituzte lanean, dolar bat irabazteko.

Lan honekin, Tahar Ben Jellounek planetako herrialde txiroenetan lanean diharduten haurren errealitatean murgiltzen dira. Munduko gauzarik txarrena «ezjakintasuna» dela da lanaren mezu nagusia.

LUIS CAMINO ▶ MUSIKARIA

«Honelako antzezanekin errazago barneratzen dituzte mezuak haurrek»

I. Garcia ▶ Luis Caminok (Dostonia, 1960) egin du *Eskola hutsik* antzezanaren musika eta berak jotzen du musika hori zuzenean.

Nolakoa da obraren musika?

Musika soila da. Perkusiozko instrumentuak erabiltzen ditut musika guztia egiteko. Sonoritate pixkat emateko instrumentu jakin batzuk erabiltzen ditut,

Senegaleko balafoa, adibidez.

Musika ere protagonista dela esan daiteke?

Mementu batzuetan protagonismoa badauka. Lana oso borobila da. Alde batetik, Karlos Nguemak egiten duen bazarriketa dago; bestetik, irudiak agertzen dira; eta azkenik, musika zuzenean. Bere osotasu-

nean oso plastikoa da antzezan.

Zer nabarmenduko zenuko obraren esanahiaz?

Haurrei zuzendutako lana da eta karga pedagogiko handia du. Haurrek askotan entzun dituzten mezuak esaten dira, baina honelako antzezan baten bitartez mezu horiek errazago barneratzen dituzte. ◀

VILLABONA-ZIZURKIL ▶ POLITIKA



Tejeria eta Lazkano alkategai aurkeztu ditu EAJk

Erredakzioa ▶ EAJ alderdiak Bakartxo Tejeria eta Marian Lazkano aurkeztu ditu hautagai bezala, Villabonako eta Zizurkilgo alkatezarako, hurrenez hurren. Aurkezpen ekitaldian ere izan ziren Joseba Egibar GBBeko lehendakaria eta Markel

Olano EAJren hautagaia Foru Aldundiko hauteskondeetarako. Besteak beste, egun alkate diren Tejeriak eta Lazkanok, Ori ibaiaren inguruko eremu berritze lanetan bi Udalak elkarlanean egindako proiektua nabarmendu zuten. I. GARCIA

EUSKARA ▶



Tolosako udaletxeko pleno aretoan egin zuten Bai Euskarari Ziurtagiriaren aurkezpena. N. URBIZU

Ziurtagiria eragile sindikalen aurrean aurkeztu dute

Kontseiluko nahiz enpresetako kide batzuk egin zuten Tolosan; agertu zen sindikatu bakarra LAB izan zen

NEREA URBIZU

Tolosako udaletxeko pleno aretoan Euskararen Gizarte Erakunde Kontseiluak eta Tolosaldeko euskalgintzak Bai Euskarari Ziurtagiriaren aurkezpena egin zuten atzo eguerdian. Kasu honetan, lan munduan ziurtagiri hau zabaldu nahi dutenez, eragile sindikalen aurrean aurkeztu zuten. Helburua, Mikel Gerrikoren hitzetan, «euskarak lanean ere bere garapen osoa izatea» da.

Atzoko prentsaurrekoan Iñaki Azaldegi Tolosako euskara teknikaria, Mikel Gerriko Kontseiluko koordinatzailea, Rober Gutierrez Kontseiluko arduraduna, Arantxa Jauregi SAM enpresako eta komiteko kidea, Leire Mujika Emun hizkuntza zerbitzuko ordezkaria eta Galtzaundi euskara taldeko Edurne Mendia izan ziren. Entzuleak, berriz, LAB sindikatuak bakarrik izan ziren, nahiz eta deialdia erabat irekia egin.

Duela 6 urte akordio hau garatzen hasi ziren Tolosaldean. «Dagoeneko 61 eragile sinatu dute eskualdean». Baina, duten «arantza bakarra hau da: lan munduan ez dugu lortu inplikazio horren handia prozesu honetan». Horregatik, eta «nahiz eta ziurtagiri hau eza-guna izan, ez da bakarrik borondatea eta konpromisoa izatea: irizpide batzuk betetzen di-

tuela erakutsi behar du, maila bat edo bestea lortu duela, hain zuzen». Maila hauek hiru-tan banatzen dituzte: *Bidean* deitutakoa, *Guk zerbitzua euskaraz*, eta gorenena, *Guk zerbitzua eta lana euskaraz*.

Bai Euskarari Ziurtagiria izatearekin enpresek izan ditzaketen abantailak aipatzeaz gain, Tolosaldeko SAM enpresako adibidea plazaratu zuten, *Bidean* deitzen dioten fasean daudela gogoratuz. Arantxa Jauregik esan zuen moduan, «emandako pausoa hasieran kosta egiten da, baina gero errazago eramaten da. Dena dela, nahiz eta uste izan asko egin dugula, beti dago zerbait gehiago egiteko».

Momentura arte, *Bidean* fasean daudenak dira gehienak eta ia guztiak komertzioak dira, dendak. Tolosako, Villabonako, Alegiko, Irurako eta Anoetako Udalak dira, besteen artean, diru laguntza eman dutenak edota prozesu honetan laguntza ematen ari direnak, ekimen honetan lan arlokoek ziurtagiri honekin konpromisoa hartu izanez gero.

Lan mundua jorratu aurretik

Bai Euskarari Ziurtagiria lan munduan zabaldu nahi izan dute, baina hori baino lehen eskualdean hainbat talde sortu dituzte ere: Bai Euskarari

Akordioaren aurkezpena Alegian egin zuten joan den astean. Martxoan eta apirilan zehar Galtzaundiko teknikariak Alegialdeko hainbat eragileri Bai Euskarari Ziurtagiria sustatu-

Esan behar da Alegiko Bai Euskarari Akordio eta Konpromiso prozesua Tolosaldeko prozesuaren baitan lanean dabilela. Prozesu horren barruan, apirilaren 19an, Tolosaldeko Bai Euskarari Ziurtagiriaren banaketa ekitaldia egingo dute Villabonako Gurea antzokian.

VILLABONA ▶ GIZARTEA

Etzi ekingo diote Euskal Asteari Ernioean

Ikasgaien eta euskal kulturaren arteko loturak sendotzeko helburuarekin egingo da

ERREDAKZIOA

Villabonako Ernioea Institutuan Euskal Astea prestatu dute. Balarako kultur eragile diren hainbat talderekin harremanetan jarri dira (Oinkari dantza taldea, bertsolaritza eskolako Amaia Agirre) eta gazteen artean euskarak duen presentziaren inguruan hausnarketa egitea, eskolan ohikoak bihurtu diren hainbat ikasgaien edota Euskal Kulturaren inguruko formazioa jasotzea zein hausnarketa egitea dira helburu.

Etzi hasi eta hilaren 30ean bukatuko dira. Tartean, *Aupa Etxebeste* filma ikusteko aukera izango dute. Ekimen hauetan parte hartzeko gonbitea luzatu dute ikastetxe-koek, batez ere ostiralera-ko.

EGITARAUA ▶

Etzi. 1. eta 2. mailako ikasleek bixte lehiaketa eta Asisko Urmenetaren hitzaldi interaktiboa 14:30ean.

Martxoak 27, asteartea. *Aupa Etxebeste* filma 14:30ean.

Martxoak 28, asteazkena. Udaletxeko Euskara Batzordearen bitartez, Joxe Marie Carrere ipuin kontalaria.

Martxoak 29, osteguna. 14:15ean euskal jantzien sinbologiaz, hitzaldia eta dantza.

Martxoak 30, ostirala. Bertso emanaldia, Amaia Agirrearen ezinbesteko laguntzaz. Herri kirolak, eta Euskal Pilotaren inguruko erakusketa.

PILOTA ▶

GRAVN martxan, eta Euskadiko klubena, gaur

Gaur Beotibarren Aurrera-Saiatz pilota eskolako bost partida jokatu dira. Euskadiko Kluben Txapelketakoak dira goizekoak: bi hauek 10:30etik aurrera izango dira, senior mailakoak. 16:00etan, berriz, GRAVN Txapelketakoak izango dira. Bizkaiko kontra izango dira hiru norgehiagokak.

AMEZKETA ▶

Bihar bilera, ezker abertzaleak antolatuta

Bihar eguerdian, 12:00etatik aurrera Amezetako ezker abertzaleak deitutako herri batzarra izango da balio antzeko gelan. Bertan jorratuko dituzten gaiak hauek dira: udal hauteskundeak, herri-tarrek emandako iritziak (udaletxeko atarian jarritako postontzian sartu zituzten) eta egungo egoera politikoa.

HERRI KIROLAK ▶

Urrezko Aizkoraren bila

Bi eskualdetako lau aizkolari lehiatuko dira Banakako Txapelketan, hasieran bost baziren ere, gerri inguruko lesio baten ondorioz, Unai Otaño ibartarra «ia ziur» ez da aterako elite mailan

N. GARZIA - A. IMAZ

Buruz Buruko Urrezko Aizkolarien Txapelketa abian da partehartze handiarekin. Lehen, bigarren eta hirugarren mailako aizkolariek elkarren artean lehiatuko dira kanporaketa moduan. Faboritoak betikoak izango dira, txapelketaren azken zatian sartuko diren Nazabal, Larretxea eta Ollasagasti, hain zuzen ere. Egin beharreko lana erabat zehaztu gabe da goen arren aurrera begira, lehen kanporaketetan proba ez-

berdinez osaturiko lehiak ikusi dira; ahalik eta kolpe gutxienean egurra moztea, denbora gutxienean, zutika eta bi kanardiko eta 60 ontzako moztea izan dira orain arteko probak. Finalari dagokionez, ekainaren 9an edo 10ean jokatu da Azpeitian.

Partaide berrien artean, Felix Etxeberria azpimarratu behar da, 8 urte kanpoan egon ondoren, gaixotasun baten ondorioz, aurten berriro itzuliko da lehiara. Toledano segoviarra (Espainia) ere berrikuntza

izango da, lehen aldian izango baitu txapelketa honetan. Bestalde, mina hartuta dagoen Miel Mindegiaren izena parte hartuko dutenen artean agertzen bada ere, Luixmari Bengoa antolatzaile nagusiak adierazi duenez, azken unean erabakiko omen du jokatzeko moduan dagoen edo ez.

Eskualdeko aizkolariek

Bi eskualdetatik gutzira, elite mailan lau aizkolarik eman zuten izena eta Jokin Alkizaletek

18 urtez azpikoan. Maila nagusikoak hasera batean hauek ziren: Anjel Arrospide leaburuarra, Jon Rekondo leitzarra eta Jexux Mari Mujika eta Unai Otaño ibartarrak. Azken honek ordea, entrenamenduan aste honetan gerri bueltan izandako lesioa medio, «ia ziurtasun gutzi» ez du lehiatzerik izango aurtengo Banakako Urrezko Aizkora Txapelketan. Lehen Mailara igo berria den ibartarrak «penaz» hitz egiten zuen gertatu zitzaionaren inguruan. «Entrenamendu batean punta-

zo bat sentitu nuen eta hasera batean hoztu zenean garrantzirik ez banion eman ere, hurrengo egunean lanerako ere gauza ez eta masajistarengana joan nintzen, honek 15 egunetako atsedena hartzeko esan zidan eta ia ezinezkoa izango zait lehen kanporaketara heletzea». Hilaren azken egunean zen jokatzekoa Unai Otaño Zegaman, Jon Rekondo leitzarra eta Jesus Mari Esnaola zegamarraren artean jokatu den lehiatik garaile irteten zenaren aurka.

ANJEL ARROSPIDE ▶ AIZKOLARIA

«Hauxe da nire gustuko txapelketa»



HITZA

Anjel Arrospide leaburuarrek bere burua faboritotzat ez badu jotzen ere, aukerak badietuela esan dute eskualdeko beste aizkolariek. Zutika oso ondo moldatzen omen da eta hori oso garrantzitsua da lehiaketa mota honetarako. Urteetan aurrera doan arren, azken aldian aizkora munduan urteek kalte baino mesede egiten dutela dirudi.

Nola aurkitzen zara sasoi aldetik?

Txapelketa begira orain ari naiz entrenamendu nahiko gogorrek egiten eta neroni nekatu xamar nagoen arren nahiko gustura mementuz.

Txapelketa honetarako entrenamendu berezirik egiten al duzu?

Oraingoz lehengo erara jarraitzen dut. Lehenik fondoa lantzen ari naiz eta azken aldera edo hemendik aurrera serieak egiten hasiko naiz. Lehiaketa lan motzean denez, ea pixka bat bizitzen garen. Bestela, astean bi edo hiru alditan ibiltzen naiz aizkora eta gero mendi bueltak egiten ditut.

Txapelketa honetan Zutikako

proba zeresana ematen ari da.

Gasitei kosta egiten zaie zutika egurra moztea, baina gu lehendik ere ibiliak gaude. erakustaldietan egur bat edo beste moztu ditugu eta nahiko ondo moldatzen garela uste dut goi xamar aldean gaudenok.

Zu, aldiz, espezialista zaitugu zutikako proban?

Nahiko ondo eusten diet puntan dauden horiei, bai. Gero nolako egurra ateratzen den kontutan hartu behar da. Baina egia esan gustura ibiltzen nahi teknika horretan.

Zeure burua faboritoen artean sartuko al zenuke?

Ez. Nazabal eta Larretxea daude sasoi batean eta zaila izango da horiek menperatzea. Batez ere Nazabal ikusten dut faborito. Larretxea ere lan motzetan oso ondo moldatzen den aizkolaria da, indar haundikoa. Bien artean egongo da txapela nire ustetan, azken urteetan gertatu den bezala.

Hala ere hau da zure gustuko saioa.

Bai, hauxe da gustukoan dudana lehiaketa. 20 minutu inguru-

koa da eta ez da hain luzea. Beste txapelketak, luzeagoak direnak utzita dauzkatz gainera.

Nola ikusten dituzu elite mailan parte hartuko duten Rekondo leitzarra eta Mujika ibartarra?

Rekondo nahiko ondo ikusten dut. Nere ustez kilo batzuk hartu behar ditu oraindik, golpe pixkat falta bait zaio. Hala eta guztiz ere, teknika haundiko aizkolaria da, erraz moztzen duena. Ondo ibiliko dela uste dut. Mujika berriz azken urteetan oso ondo dabil. Orain berriz Lopez Azpilikuetauren aurka tokatu zaio eta lan txarra da hori. Azpilikueta bere urtean dago, oso ondo dabil.

Nola uler daiteke, aizkora goran daudenak urteetan aurrera doazanak izatea?

Atzetik ez dugulako bultzadarik gertatu da hori. Mendian egiten den bezala, lurrak bultzatuta joaten dira behera. Gurekin ere berdina gertatzen da. Gure garaian kuadrila irten zen bezala, ondoren ez da horrelakorik gertatu eta horregatik goian jarraitzen dugu urteetan aurrera goazenak. ◀

hilberriak ▶



Inaxi Uzkudun Aiertza

loba askoren izeba denon bigarren ama zenuen guztia eman diguzuna eta inoiz ahaztuko ez zaituguna

Zure ilobak

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela GAUR, larunbata, arratsaldeko 17:00etan, San Martin parroki elizan, GORPUBA BERTAN dela egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea ▶ Ezama Enea baserria oharra ▶ gorpua Azpetiko beiletegian dago


ERREZILEN, 2007ko martxoaren 24an

HILBERRIAK URTEURRENAK ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

JON REKONDO ▶ AIZKOLARIA

«Txapelketa honetan lana motza izaten da eta zorteak zerikusirik ere badu»

Aizkolari leitzarra bihar Esnaola zegamarraren aurka lehiatuko da, Lekunberrin

Jon Rekondo (Leitza, 1985) lehengo urtean finalera iritsi zen, baina Txapelak alde egin zion. Bihar jokatu du aurtengo edizioko bere lehenengo lehia, Esnaolaren aurka.

Elite mailan parte hartzeak aizkolari gazteei gauzak zaildu egiten al dizkizue?

Beti ere helduen aurka aritzeak aukera gutxiago ematen dizkizu, baina aurrea elite mailan ibiltzen gara eta gero kanporaketan, gazteetan. Ho-

nek beti aukera gehiago ematen dizkigu.

Aurreko urtean finalera iritsi izanak abantailarik ematen al dizu?

Bai, zuzenean aurre xamarrera pasako naiz, eta gutxi gorabehera bi norgehiagoka jokatu finalera pasa naiteke. Aurreko urtean, berriz, norgehiagoka asko jokatu behar izan nituen finalera pasatzeko.

Binakako Urrezko Aizkorako Txapelak alde egin ondoren,

nola zaude forma alde-tik?

Berdintsu. Hala ere aste honetan katarroarekin ibili naiz eta ea zer egin dezakedan...

Zel in da lehiaketa honen bereizgarria?

Txapelketa honetan lana motza izaten da, eta zorteak zerikusirik ere badu. Akats txiki batengatik gal dezakezu. Gainera, txapelketa honek hainbat modalitate izan ohi ditu.

Igandeko norgehiagoka nola ikusten duzu?

Lehengo urtean Esnaolari irabazi egin nion. Normalean ni baino baxuxeago ibiltzen da, baina orain ez dakit nola dabilen.

Horrelako txapelketatan ere ezustekoak gertatzen al dira?

Bai. Lehengo urtean ni nintzen favorittoa eta finalera iritsi arren ez nuen irabazi: hori izanduzen ezustekoa.



N. GARZIA

Eta aurten favoritorik ba al dago?

Uste hor gabiltzan artean, batzutan batek irabazten duela, bestetan beste batek... ◀

JEXUX MARI MUJIKA ▶ AIZKOLARIA

«Nire maila emanez gero paper on bat egin dezaket»

10 ordu lan egin ondoren Gaztelun zegoen entrenamenduan Jexux Mari Mujika. Elurrez inguraturik eta aitaren begiradapean, serieak lantzen ari zen ibartarra. Urrezko Aizkoraren lehen kanporaketan Arabako txapeldunaren aurka lehiatu zen garaipena lortu eta aurrera jarraituaz.

Lopez Azpilikueta izango duzu orain arerio.

Zaila izango da, maila handiko aizkolaria baita eta Lehen Mailan dagoena gainera. Esperantz handirik ez daukat, baina nere maila eman ezker, uste dut berriz paper on bat egiteko moduan izango naizela.

Zutikako egurrak ematen al dizu errespetu gehien?

Bai. Esperientzia handirik ez daukat eta entrenamenduetan saiatu arren, beldur pixka ba-



HITZA

tekin ibiltzen naiz, konfidantza handirik gabe. Zubiagaren aurka denbora galdu nuen zutika nahiz eta gero errekuperatu. Azpilikueta ere denbora ziur denbora kenduko didala.

Zer lantzen duzu entrenamenduetan?

Txapelketen ezberdina da lehia mota hau. Esplosiboagoa denez, serieak lantzen ditut nik, iraupena baina gehiago.

Kostu ekonomikoak ere izango ditu honek denak?

Izugarri. Honetan ibiltzen denak badaki ongi zer gastu dagoen hemen. Laneko diruaz ordaintzen ditut egurra eta aizkorak, eta azkenean gastu handia da. Maitasun handia eduki behar zaio kirol honi hainbeste sakrifikatze. ◀

JOKIN ALKIZALETE ▶ AIZKOLARIA

«Txapelketan maila altua dago eta jendea prestatu egiten da»

Alkizalete gaur Mindegiaren aurka lehiatuko da, Asteasun

Jokin Alkizaleterentzat (Asteasu, 1989) lehengo aldia izanen da Urrezko Aizkora Txapelketan parte hartzen duela. Gaur, Asteasun, Alejandro Mindegiaren aurka lehiatuko da, 22:30ean.

Nola ikusten duzu gaurko norgehiagoka?

Mindegia ez dut sekulan ikusi, ez dakit nola dabilen. Ni, be-

rriz, entrenamenduak alde batera utzita, katarroarekin egon naiz.

Asko entrenatu al zara txapelketarako?

Aurreko asteazkenean esan zidaten parte hartuko nuela, beraz ez dut bereziki prestatzeko denbora gehiegi izan. Normalean asteartetan Anjel Arrospidekin aritzen naiz, eta gero

ostegunetan, anaiarekin, lasai-lasai.

Duela gutxi sartu zara aizkoraren munduan, ez?

Bai. Joan den abenduaren 30ean lehengo lehiaketa parte hartu nuen, eta aurretik abuztuaren aritu nintzen, sanpedrotan. Jendea gustura geldituzen eta Anjel Arrospiderek entrenatzen hasi nintzen.



A. IMAZ

Orain arteko esperientzia zer moduzkoa izan da?

Ona, baina garesti xamar ateratzen da, oraindik ez baitugu irabazirik.

Zel in izango da zure helburua aurtengo txapelketa honetan?

Alde batetik itxura polita ematea, jendea ikuskizunarekin gustura gelditu dadin eta ikastea, hau da, plazan esperientzia hartzea.

Txapelketako aurkari gogorrenak zel in daitezke zure ustetaz?

Eratsunek golpea dauka eta Cañameres ere oso ondo dabil. Txapelketa honetan maila altua dago eta jendea prestatu egiten da. ◀

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. Exhale musika taldearen emanaldia Bonberenean 22:30ean.
Tolosa. Gaitzaundi Euskara Taldearen batzarra izango da Kultur Etxean 09:00etan.
Tolosa. Ballet Biarritz Junior taldearen dantza ikuskizuna izango da ikusgai Leidor aretoan 20:00etan.
Tolosa. Kirol Gaua izango da lehen aldiz Usabal kiroldegian, hainbat kirol praktikatzeko eta ikusteko aukera gau osoan zehar.
Tolosa. La Jara Extremadurako Zentroak irteera antolatu du Extremadurara maiatzeko zubirako Trujillo (Cáceres), Don Benito (Badajoz), Zafra (Badajoz), Jerez de Los Caballeros (Badajoz) eta La Serena (Badajoz) bisitatuz. Prezioa: 230 euro. Izen-ematea, 675 707619.
Tolosaldea. Korrika pasatuko da Tolosaldeetik: Ikaztegietan 8:42an, Alegian 9:02an, Tolosan 9:28an, Anoetan 10:26an, Iruran 10:33an eta Villabonan 10:46an eta Zizurkilen 11:05ean.
Ibarra. Ibarrako Udalak eta Uzturpe ikastolak gurasoentzako tailerrak antolatu dituzte, arazoei nola aurre egin aztertzeko. Izen-ematea, Ibarrako udal txetxeko Gizarte Zerbitzuetan.
Bidegoian. Apirilaren 24an Andoni Zelaia presoaren epaiketa izango da Madriren, 10:30ean. Udalak autobusa doan antolatu du apirilaren 23rako, 16:00etan. Izena 659 942 759 telefononon eman behar da hil honen 30a baino lehen, ostirala.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Leitza. Erbiti, O. Lizarraga, 7. 112.
 Tolosa. Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.

IRRATIA

Txolarre irrati
 (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Hitzak hegan.*

Goiko irrati
 (107.0 FM)
 12:00. *komerra...*

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Pisu huts gehiegi gurean

TOLOSA ▶ 'Hutsik duzun etxea bizitzaz bete' lelopean Tolosako Triangulon egon zen atzo autobusa; Tolosan 1.300 pisu daude hutsik, erregistratuta



Autobusa Trianguloan egon zen egunean zehar. Barruan Bizigune proiektuari buruzko informazioa eman zuten. 50 bat lagun pasa ziren. N. U.



Arrainen xehetasuna erabili dute kanpaina honetarako: arrain-ontzia arrainekin, 'biziz beteta'. N. URBIZU

NEREA URBIZU

Arrainak arrain-ontzian ikustea deigarria izan zen. Deigarriagoa da, baina, Tolosan hutsik dauden pisuen kopuru harrigarri eta larria: emandako datuen arabera, Tolosan bakarrik, 1.300 etxebizitza daude hutsik. Hauetatik 28 dira Bizigune programan sartuta daudenak. Atzo Tolosan *hutsik duzun etxea bizitzaz bete* autobusean informazioa jasotzeko aukera izan zen.

Bizigune esanetan, «etxebizitza hutsa urte batean jarraian inork okupatu ez duena eta bigarren bizilekua ez dena da». Ondoren, pisu hauek Eusko Jaurlaritzak hartzen ditu, eta alokatzeko eskubidea izango du: jabeak beti pisua «utzitako egoera berean hartuko duela berमतuta dago».

Tolosan Etxebiden 941 lagunek eman dute izena: hauetatik 538k alokatzeko interesa dute. Bizigunen, dagoeneko 243 lagunek eman dute izena.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Enderitz Sorarrain (Anoeta).
 Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu asko, etxeko partetik.



URTE ASKOAN
 Elixabet Lopetedi Saizar.
 Muxu handi bat gure printzesari. Familiak.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZaren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZaren egoitza Leitza Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...